




Gabriel Aresti

Poesia eta gizartea

Jon Kortazar

Saio eta Testigantza, 284

978-84-9172-455-1

2025 - 232 or. - 17 x 24 cm

24 €

Gabriel Aresti. Poesia eta gizartea liburuak Bilboko poeta handiari eginiko hurbilketa eskaintzen du. Lehen poemetatik hasi eta azken poemetaraino haren eskutik jarraitu du Jon Kortazar egileak garaiko historia. Bere poesiaren hariak bilbatzen ditu testu honek eta bere ardura nagusiak agertzen. Gerra Zibilari buruzko bere irudia, Javier Batarritaren heriotza tragikoa, Bilboko etxolen bizitza nekagarria, Otxarkoaga auzoaren eraikuntza, garaiko langileen istripu negargarriak aipatu zituen Gabriel Arestik.

Gogora ekarri ditugu gai horiek, bertsolariekin batera bere burua «Herrian txertatu, gu geu ere herri bihurtzeko» asmotan idazten zuen poetaren irudia eta bere lanaren irakurketa amaigabea agertzeko asmoz.



JON KORTAZAR
(Mundaka, 1955)

Euskal Literaturaren katedraduna da EHUn 1992az geroztik. Lan handia egin du euskal literatura aztertzen eta ezagutarazten, bai Euskal Herrian, bai Euskal Herritik kanpo. 2000. urtean Bilboko Udalerako *Gabriel Arestiren mundua* erakusketa atondu zuen. 2003an Gabriel Arestiren biografia argitaratu zuen, eta Madrileko Visor argitaletxerentzat *El ciclo de la piedra* antologia prestatu zuen 2020an. Bere *Euskal literatura XX. mendean* liburuak zazpi argitalpen izan ditu. Orintsu *Lauxeta. Poesia, Arte, Ideologia* liburuak plazaratu dio Pamielak (2025).